

Beterri Buruntzan 2023-2024 "Elkar-ekin" estrategiaren baitan enplegua sustatu eta langabezia egoeran dauden pertsonen kontrataziorako laguntzak eskatzeko prozeduraren oinarri arautzaileak.

1.- Dirulaguntza deialdiaren nondik norakoak

Beterri Buruntza Mankomunitateak «Elkar-EKIN Lanean» estrategian parte hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, eta beste gizarte-eragile batzuekin harremanetan, «Beterri Buruntza inklusio soziolaboralaren bidean» proiektua gauzatzen ari da.

Proiektu horren barruan, 2023-2024 ekitaldietan gizarte-bazterketako egoeran/arriskuan dauden langabeak kontratatze laguntza-lerro bat abian jartzea jasotzen da

2.- Araudi erregulatzailea

Dirulaguntza hauek erakunde emailearen (Mankomunitatea) eta entitate onuradunaren arteko harreman juridikoa oinarri hauen arabera arautuko dira. Arau horietan aurreikusi gabeko guztiari dagokionean, honako arau hauek aplikatuko dira:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. (2003/11/18ko BOE).
- Ekainaren 21ko 887/2006 Errege Dekretua, diru laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (2006/07/25eko BOE).

3.Xedea

Oinarri hauen xedea da Beterri Buruntza eskualdean (Hernani, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga, Urnieta eta Usurbil) langabeak kontratatze izaera pribatuko pertsona fisikoentzat edo juridikoentzat dirulaguntzen deialdia arautzea, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak errazteko eta enpleguaren sorrera sustatzeko.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emango zaizkie Gipuzkoan egoitza soziala edo lantokia duten izaera pribatuko pertsona fisikoei edo juridikoei, Beterri Buruntzako Mankomunitateak "Elkar Ekin" estrategiaren baitan eskualdean abian jartzen diren baliabide soziolaboralean parte hartzen duten eskualdeko langabeak kontratatze. Oro har, baztertze arrisku edo egoeran dauden Beterri Buruntzako langabeei kontratazio aukerak bultzatzea dute helburu.

Beterri Buruntzako udalek azken urteetan Enplegu Soziala programaren baitan zaurgarritasun egoera edota giza bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzeko ibilbideak lantzeko, baliabide soziolaboralak eta elkarrekin zein erakundeekin egindako elkarlanari esker, hurrengo egitasmoak daude edo egongo dira martxan.

a) Inserzio soziolaboraleko programak Elkar Ekin estrategiaren baitakoak, eskualdeko langabeak gizarteratu eta laneratzeko ibilbideak sustatzen dituztenak eta entitate sustatzaileek Beterri Buruntzako Mankomunitatearekin lankidetzan jardun dutenak.

b) Elkar Ekin estrategiaren baitan Mankomunitateak sustatutako Enplegurako prestakuntza programak. 2023-2024 urteko ikastaroetan parte hartu eta praktikaldiak burutzen dituzten baztertze egoeran edota arriskuan dauden langabetuei zuzenduta.

Lan egiteko baimenik ezean, lanean hasteko aurrekontratu bat behar duten pertsonen egoera agerian jartzeko, lan ibilbideak garatzeko pizgarriak erantsi dira.

Oinarri arautzaileok sustatzen dira publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioei jarraikiz, eta gardentasun parametroen pean, Gipuzkoan langunea duten izaera pribatu pertsona fisikoen edo pribatuen eta Beterri Buruntza eskualdeko langabeen artean ahalik eta hedapen handiena izan dezaten

4.-Aurrekontu zuzkidura

Deialdi honetan aurreikusitako diru laguntzak 80.000 €-koak izango dira eta 2023ko Mankomunitateko aurrekontuko 38 kodedun 1 0100.417.241.00.08 2023 aurrekontu partidaren kargura finantzatzeko dira.

5.- Kontrataturiko pertsonen baldintzak

Kontrataturiko pertsonak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Kontratazioa baino lehen Beterri-Buruntza eskualdeko udalerritako batean (Hernani, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga, Urnieta edo Usurbil) erroldatuta egotea eta errolda eguneratuta izatea.
- Kontratazioaren unean langabezi egoeran eta Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea. Langilea egoera administratibo irregularretik lan egiteko baimena izatera pasatzen denean, nahikoa izango da gizarte segurantzako lehen alta aurkeztea.
- Izaera pribatuko pertsona fisikoekin edo pribatuekin, edo horien kontrola dutenekin edo zuzendaritzako karguak betetzen dituztenekin edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko kideekin odolkidetasunagatik edo ezkontzagatik bigarren mailara arteko ahaidetasun harremana daukaten ezkontidearekin, ondorengoekin eta gainerako ahaideekin ahaidetasun harremanik ez edukitzea. Enpresaren erantzunkizunpeko adierazpenarekin frogatuko da. (I. eranskina)
- Enpresa kontratatzailearekin lan harremanik ez eduki izana kontratua sinatu aurreko 3 hilabeteetan.
- Elkar ekin estrategiaren gizarteratze eta laneratze programetan parte hartzen duten eskualdeko langabeak izatea.

6.-Laguntzen enpresa onuradunak

Izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridiko onuradunak honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Egoitza soziala eta/edo lantokia Gipuzkoan duten pertsona fisiko edo juridikoak edo erakunde pribatuak, edozein forma juridiko dutelarik.
- Administrazio, erakunde eta organismo publikoen mendeak ez izatea eta sozietate bidez %50ean edo gehiagotan lotuta edo partaidetuta ez egotea.

- Aldi baterako laneko enpresak ez izatea.
- Foru-ogasunaren, Gizarte Segurantzaren eta Beterri Buruntzako udaletan zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga horren ordainketak betetzea, enpresak zerga horri lotutako jarduerak egiten dituenean. Ordaintzetik salbuetsita badaude, erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatu beharko da.
- Arau-hausteengatik dirulaguntza publikoak jasotzetik kanpo ez egotea
- Laguntzaren xede den kontratazioa formalizatzea 2024ko irailaren 30a baino lehen.
- Laguntzaren xede den kontratazioari enpresaren jarduerari dagokion lan-hitzarmena aplikatzea
- Ez izatea sexu diskriminazioagatik zigorrik.
- Plantillan 50 pertsonatik gora dituen enpresa bada, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plana edukitzea.
- Administrazio honi berehala jakinaraztea kontratazioaren ondoren sor daitekeen edozer aldaketa edo arazo.
- Eska dakioken beste edozein.

7.- Kontratu mota

Kontratuek honako ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:

- a) Kontratuen iraupena mugagabea izango da, eta edozein kontratazio-modalitatearen bidez formalizatu ahal izango dira, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua izan ezik
- b) Kontratuak lanegun osokoak izango dira edo %50eko lanaldi gutxiengoarekin.
- c) Laguntza hauetan parte har dezakete 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitartean gauzatzen diren kontratazioak.
- d) Beterri-Buruntza Mankomunitateak egiaztatu eta ziurtatuko du kontratu mugagabeek beren horretan jarraitzen dutela gutxienez 6 hilabetez.
- e) Enpresa onuradun bakoitzari diru-laguntza bat baino gehiago eman ahal izango zaio.

Diruz lagundutako kontratuak kontratuaren lehen 6 hilabeteetan azkentzen badira, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, salbu eta iraungitze hori probaldia ez gainditzeagatik, langileak lana bere borondatez uzteagatik, bidezkotzat jotako kaleratzeagatik edo kontratatutako pertsonaren heriotzagatik edo baliaezintasunagatik izan bada; kasu horretan, lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Langileari egotz dakizkiokeen bajen kasuan, enpresak beste pertsona bat kontratatu ahalko du geratzen den denborarako. Horretarako, beste langile bat kontratatu ahalko du, aurreko langilearen baldintza beretan eta 15 eguneko epean. Hori guztia Beterri Buruntza

Mankomunitateari jakinarazi beharko zaio, eta horrez gain, kontratazio berriari dagokion dokumentazioa helarazi beharko zaio.

8.Dirulaguntzak.

Bi laguntza-talde banatuko dira; batetik, Beterri-Buruntza Mankomunitateak “Elkar ekin” estrategiaren baitan lanerako prestakuntza jaso duten langabeentzako laguntza espezifikoa, lanerako prestakuntzako ikastaroen bidez edota profesionaltasun-ziurtagirien bidez 2023an eta 2024ean; bestetik Beterri-Buruntza Mankomunitateak aipaturiko “Elkar ekin” estrategiaren barruan eragile kolaboratzaileak dituen agenteen bidez bideratutako kontratazioak, 2023 eta 2024ean. Hori dela eta itzuli beharrik gabeko laguntza hauek ezartzen dira:

8.1.- Laneratze ibilbideetara bideratutako diru-laguntzak.

Emango diren laguntzak Beterri-Buruntza Mankomunitateak “Elkar ekin” estrategiaren barruan, bere kabuz exekutatzeko aurreikusten dituen profesionaltasun ziurtagiri edota lan prestakuntzako ikastaroak gainditu dituzten langabeak kontratatzeko erabiliko dira. Kasurako aipatu aurrikusitako ikastaro edota ziurtagiri profesionalak zaintza eta eraikuntza lan familiakoak izango direla.

Orotara 39.000 €ko dirulaguntza aurreikusten da lerro honetarako

Mota/Tipo	Iraupena Duración	Jardunaldia Jornada	Kolektiboa Colectivo	Kontratuko laguntza kopurua Cuantía por contrato
A1	Mugagabea Indefinido	100	Ibilbide formatiboko langabea	3000
A2	Mugagabea Indefinido	50	Ibilbide formatiboko langabea	1500

- Gehienez 3.000 €-ko laguntza iraupen mugagabeko kontratua duten lanaldi osoko langabeak kontratatzeagatik, gutxienez 6 hilabeterako (A1)
- Gehienez 1.500 €-ko laguntza, iraupen mugagabeko kontratua duten lanaldi partzialeko langabetuak kontratatzeagatik (gutxienez lanaldiaren %50), gutxienez 6 hilabeterako (A2).

Bi kasuetan enpresak jaso beharreko laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonaren urteko soldata eta gizarte segurantzaren %75 gainditu.

8.2.Beterri Buruntzan “Elkar ekin” estrategiaren baitako agenteen bidez pertsonak kontratatzeko diru-laguntzak.

Beterri Buruntza Mankomunitateak “Elkar ekin” estrategiaren baitan “Beterri Buruntza inklusio soziorabazalaren bidea” proiektua hitzartu du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Proiektu horren barruan hainbat gizarte eragilek parte hartzen dute eta oinarri hauen eranskinean jasotzen dira.

Aipatzen diren eragile horiek, beren proiektuetan parte hartzen duten langabeen laneratze prozesu edo artikulazioak errazteko kontrataziorako dirulaguntzak hauek ezartzen dira.

Beraz, diruz lagunduko da aipatzen diren eragile horien bidez Gipuzkoako enpresetan kontratatzen diren langabetuak.

Orotara 41.000 €ko dirulaguntza aurreikusten da lerro honetarako.

Mota/Tipo	Iraupena / Duración	Jardunaldia / Jornada	Kolektiboa / Colectivo	Kontratuko laguntza kopurua /Cuantía por contrato
B1	Mugagabea /Indefinido	100	Ibilbide formatiboko langabea	3000
B2	Mugagabea / Indefinido	50	Ibilbide formatiboko langabea	1500

- Gehienez 3.000 €-ko laguntza iraupen mugagabeko kontratua duten lanaldi osoko langabeak kontratatzeagatik, gutxienez 6 hilabeterako (B1)
- Gehienez 1.500 €-ko laguntza, iraupen mugagabeko kontratua duten lanaldi partzialeko langabetuak kontratatzeagatik (gutxienez lanaldiaren %50), gutxienez 6 hilabeterako (B2)

Bi kasuetan enpresak jaso beharreko laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonaren urteko soldata eta gizarte segurantzaren %75 gaintitu.

8.3.- Diru laguntzen 2 ildoetarako buruzko gogoeta komunak.

Erabilgarri dagoen kreditua (8.1 eta 8.2. lerroetan) agortu arte emango dira laguntzak, 2023ko ekitaldirako mankomunitate-aurrekontuarekin bat etorriz. Dirulaguntza emateko, ondoren justifikatu egin beharko da, eta aurrekontu-mugak bete beharko dira.

A1., B1 edota B2. lerroetako batean aurrekontu-kreditua agortzen bada, horietako baten soberakinak erabili ahal izango dira, hala badagokio, lehenengoetatik erantzun ezin diren eskaerak bete ahal izateko

Diruz lagundu beharreko zenbatekoa honako kasu hauetan handituko da:

- % 10eko igoera, kontratatu beharreko pertsona emakumea bada.

- % 10eko igoera, kontratatuko den pertsona iraupen luzeko langabea bada eta/edo DSBEn jasotzailea/onuraduna.
- % 10eko igoera, enpresa kontratatzaileak helbide soziala edo lantokia Beterri Buruntzako eskualdean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) badu.
- % 20ko igoera, lanerako aurrekontratu proposamen bat behar dutenei eginez gero.

Gehikuntza horiek metagarriak izango dira, baina gehieneko dirulaguntza, A1/B1 lerroei dagokionean, ez da 4.200 €-tik gorakoa izango edota A2/B2 lerroei dagokionean ez da 2.100 €-tik gorakoa izango.

9.- Eskabideak izapidetzea

Eskabideak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, honela izapidetu ahalko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 eta 16ko xedatutakoari jarraituz:

- Aurrez aurre:

- Beterri Buruntza Mankomunitatearen erregistroan (helbidea: Akarregi industrialdea 10, 203-204 bulegoak). Hernani. Gipuzkoan. 20120.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren sarrera-erregistroan, bi administrazioekin sinatutako oniritziarekin bat etorritik.
- Posta-bulegoetan, 39/2015 Legearen 16.4. artikulua, urriaren 1ekoa.

- Erregistro elektronikoaren bidez:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=893&hizkuntza=EU>

Erregistro elektronikoaren bitartez aritzeko identifikazio sistema bat beharko duzu: digitalki sinatzeko txartel bat (IZENPE, CAMERFIRMA edo FNMT).

Dokumentuak www.beterriburuntza.eus webgunetik deskargatu beharko dira eta atxiki aurretik, guztiak bete. Atxiki beharreko dokumentu bakoitzak ezingo ditu 50MB-ak gainditu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Interesdunek eskaera aurkezten dutenean, oinarri hauen edukia onartzen dutela joko da. **Laguntza hauek jaso nahi dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek edo erakundeek dokumentu hauek aurkeztu** beharko dituzte:

- Eskabide orria beteta 5. eta 6. atalean eskatutakoaren zinpeko aitortpena, eta eskatzailearen baimena oinarri hauetako eskakizunekin erlazionatutako datuak egiaztatzeko, hori guztia oinarriotako I. eranskineko ereduari jarraiki.
- Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, NAN-arekin eta eskatzailearen edo eskariaren sinatzailearen ordezkariaren ahalordearekin batera.

-Hirugarren interesdunaren bankuko datuen altaren fitxa II. Eranskinari dagokion banketxearen zigiluarekin.

-Egindako kontratazioari buruzko datua, III. eranskina.

-Lan kontratuaren kopia, iraupena eta lanaldia adierazita

-Kontratuaren subjektu den pertsonaren lan bizitzaren ziurtagiria, Gizarte segurantzak egina.

-Pertsona kontratatua Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa, baldin eta:

- Langabezian dagoen enplegu eskatzailea bada.
- Diru sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) hartzailea edo onuraduna bada (hala badagokio)
- Iraupen luzeko langabea bada (hala badagokio).

-Kontratuaren subjektu den pertsonen NAN/AIZ-aren kopia

-Zinpeko aitorpena Enpresarekin edo enpresaren kontrola dutenekin edo zuzendaritzarako karguak betetzen dituztenekin edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko kideekin odolkidetasunagatik edo ezkontzagatik bigarren mailara arteko ahaidetasun harremana daukaten ezkontidearekin, ondorengoekin eta gainerako ahaideekin, ahaidetasun harremanik ez dagoela kontratatu den pertsonekin.

-50 langiletik gorako enpresek frogatu beharko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plan bat dutela indarrean.

-8.1. atalean kokaturiko dirulaguntza eskatzaileei zuzenduta (laneratze ibilbideak): Akreditazioa kontrataturiko pertsonarena 2023/2024ean, ebaluazioa egokiarekin lan prestakuntzako ziurtagiri profesionalean parte hartu duena.

-8.2. atalean kokaturiko dirulaguntza eskatzaileei zuzenduta (gizarte eragileekin elkarlanean): Akreditazioa kontrataturiko pertsonarena 2023/2024ean, Ekar Ekin estrategiaren baitan Beterri Buruntzan parte hartzen duten gizarte eragileek kontrataziorako proposatutako pertsona dela, parte hartzen duena beren laneratze prozesuetan.

Egindako **kontratazioaren azken justifikazioaren unean**, kontratazioa edo, hala dagokionean, diruz lagundu daitekeen aldia amaitu denetik bi hilabete igaro baino lehen, agiri hauek aurkeztu behar dira:

-Pertsona kontratatuari ordaindutako nominen eta RNT eta RCLen kopia.

-Diruz lagundutako kontratuko soldatak ordaindu izanaren banku egiaztagiria, laguntzari dagokion aldirako.

-Egindako kontratazioaren benetako kostua, adierazten duen zinpeko aitorpena bereiztuz bertan soldata, Gizarte segurantzak eta indemnizazioa.

Beterri Buruntza Makomunitateak honako datu hauek egiaztatuko ditu, dagozkion herri administrazioen aurrean zuzenean:

-Enpresa eskatzailea alta emanda dagoela Ekonomia Jardueraren gaineko Zergan (EJZ)

-Zerga betebeharrak (udal eta aldundi mailakoak) eta Gizarte Segurantzakoak egunean daudela.

-Pertsona kontratatua Beterri Buruntza eskualdean erroldatuta dagoela (errolda agiria eta data).

-Pertsona kontratatua Gizarte Segurantzaren altan emana dagoela.

Era berean, beste agiri batzuek ere aurkezteko eska dezake Beterri Buruntza Mankomunitateak, beharrezkotzat jotzen baditu eskaria ebaluatzeko eta erabaki bat hartzeko.

10.- Laguntzak emateko prozedura

Eskabideak erregistro-ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, errekurtsioak agortu arte, oinarri hauen 4. artikuluaen arabera laguntza honetara bideratutakoak.

Behin aurreikusitako diru kopurua agortzen denean, laguntzarik lortzen ez dituzten eskariekin itxarote-zerrenda bat osatuko da.

Diru-laguntza eskuratu duen onuradunen batek ez baditu ezarritako baldintzak betetzen eta diru-laguntza bertan behera geratzen bada, zerrenda horretako lehenengoari emango zaio diru-laguntza, beti ere aurrekontu-zuzkidura baldin badago.

Oinarriotan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskariak prozedura honetatik kanpo geldituko dira

11.- Aurkezteko epea eta ebazteko epea.

Eskariak aurkezteko epea deialdia GAO-n argitaratu biharamunean hasi eta 2024ko urriaren 15ean amaituko da.

Mankomunitateko Lehendakariak eskariak ebatziko ditu, xede horrekin eratutako balorazio mahaian balioetsi ostean.

Ebazpenak bi epetan emango dira

- a) Lehen ebazpena: 2023ko abenduaren 31ra arte aurkeztu eta kontratazioak formalizatuta dituzten eskariena.
- b) Bigarren ebazpena: 2024ko urriaren 15era arte aurkeztu diren eta kontratazioak formalizatuta dituzten eskariena.

Behin adierazitako epeak igarotakoan, ez bada berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi, eskaria atzera bota dela joko da administrazioaren isiltasunagatik.

Laguntzak emateko ebazpenean laguntzen zenbatekoa ezarriko da berariaz eta, hala dagokionean, laguntzen onuradunak bete beharreko baldintzak, obligazioak eta xedapen osagarriak finkatuko ditu, eta interesdunei jakinaraziko zaie 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Ebazpena enpresari edo erakundeari jakinaraziko zaio eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Diru-laguntzei azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 18. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

Argitalpenari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 18ko 38/2003 Lege Orokorreko 18. Artikuluan ezarritako eta 38/2003 Legearen Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 30. Artikuluan ezarritakoa beteko da.

Diru-laguntzaren Araudiko (887/2006 Errege Dekretua) 63.3 artikuluan ezarritakoa betez, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten arren finkatutako gehieneko kreditua gaingitu izanagatik atzera bota behar izan diren eskari guztien zerrenda ordenatu bat sartuko da ebazpenean. Ebazpen berri baten bidez diru-laguntza berriak eman ahalko dira, atzera botatuko eskarien zerrendako lehentasun ordenari jarraiki, uko egin duten onuradunek askatutako kreditua agortu bitarte.

Xede horietarako, berariazko uko egitetzat joko da oinarri hauetan ezarritako ezein eskakizun ez betetzea.

Emandako ebazpenarekin ados ez egonez gero, Beterri Buruntza Mankomunitateak erabakitakoari jaramon egingo zaio eta, hala dagokionean, bi aldeak Donostiako jurisdikzioaren pean egongo dira.

12.- Dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.

Egindako kontratazioaren azken justifikazioa kontratazioaren diruz lagundu daitekeen gutxieneko aldia amaitu denetik bi hilabete igaro baino lehen egingo da. Horretarako, oinarriotako 9. atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu behar da.

Ordainketa bakar bat egingo da diru-laguntzaren guztizko zenbatekoagatik, diruz lagundu daitekeen kontratazioaren justifikazioa egin denetik hilabetera gehienera jota.

13.- Beste laguntza batzuk

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izango dira kontzeptu eta helburu beragatik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin, baina finantzaketa-iturri desberdinen bidez lortutako laguntzen edo baliabideen zenbateko osoak ez du inola ere gaingituko diruz lagundutako jardueren benetako kostua.

Mankomunitate honi jakinarazi beharko zaio beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako jasotako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri

14.- Ez betetzeak

Enpresak edo pertsona kontratatuak baldintzaren bat betetzen ez badu eta, ondorioz, emandako diru-laguntza murriztu behar bada, laguntzaren hartzailearengan izango du eragina, laguntza hori murriztu era proportzionalean.

15.- Errekurtsoak

Esleipenari buruzko ebazpena ematen denean, administrazio bideari amaiera emango zaio. Gainera, ebazpen horren aurkako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da ebazpena eman zuen organoaren aurrean hilabeteko epean, ebazpenari buruzko jakinarazpena jaso eta

biharamunetik zenbatzen hasita. Bestela, 2 hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

16.- Datu pertsonalak babestea

Diru-laguntzarako eskaria aurkezten duenean, erakunde eskatzaileak adieraziko du ados dagoela, deialdian zehaztutako eskakizun guztiak betetzen dituela eta bertan xedatutako guztia onartzen duela.

Era berean, adieraziko eskabidean zehaztutako datu pertsonalak bere baimenarekin bildu direla, eta onartuko du datu horiek modu automatizatuan tratatzea. Horrez gain, baimena emango du datu horiek mankomunitatearen kudeaketan bakarrik erabili daitezen. Izan ere, beste Herri Administrazio batzuei eta bertako Organismoei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie. Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko EB 2016/679 Araudi Orokorrean aurreikusitako eran, 6.1.e artikuluan bildutakoaren arabera.

ERANSKINA I

ELKAR-EKIN PROGRAMAN PARTE HARTU DUTEN ERAGILE SOZIALAK,
BESTEAK BESTE, HAUEK DIRA:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonimia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua, eta, Gizarte Politikak Departamentua.
- Lanbiede SVE
- Andoaingo, Astigarragako, Hernaniko, Lasarte-Oriako, Urnietako eta Usurbilgo Udalak. Enplegua eta Gizarte Zerbitzuaren Sailak
- Erroak Sartu Elkartea
- Zabalduz Koop. Elk. Txikia
- EDE Fundazioa
- EAGI
- Beterri Errotuz, E.I
- Daiteke Gizarte Aholkularitza
- Sutargi SAL
- Fundación ADECCO
- Fundación EMPLEA
- Asle-Cámara de Gipuzkoa
- Katea Legaia SLL
- Cáritas
- Asoc. Emidrad@s sin fronteras
- Kalexka